

1994-95.

1. Enunt- kontrabandista zena?
2. Zor bat urtetan jarri zen bere gain?
3. Enunt-ek berezina behar izan?

(II) DONADOA 2

Kontrabanda poxi bat ere egiten zuen. Baina etzen erraiteko kontrabandista. Artzaina zen oroz lehen. Kontrabandista zen bere ardientzat. Eta mozkinak oro bere artaldearen handitzeko, edertzeko xahutzen zituen. Denak ardientzat beti.

Etxeko parte hunki zuelarik, berrogoi ardi erosi zituen ukaldian, berak zakien artalde ttipi bat osoa. Artalde hura saltzerat jina zen. Eta ardi hek berak zaintzen zituen, udan, bortuan, nagusiaren eta beraren multxoarckin. Bazakien ardi onak zirea, esna-dunak, sanoak. Aspaldian begistatuak zituen.

Eta egun batez heien nagusia jin zitzaion galdez saldu nahi litzekela, sos beharretan zelakotz alabaren dotearen muntatzeko. Eta horra nola Eñautek Mentaxuriko artaldea erosi zuen.

Ehun eta hogoi ardi bazituen orduan. Eta hogoi-ta bortz urtetan nagusi jarri zen. Bere ardiak hobeki maitatu ahal ukan zituen. Osoki heieri jokatu zen. Heietaz baizik etzakien mintzatzan, ihiztari bat bere balentriez bezala.

Artzain azkarra zela erraiten zuten. Denak ados ziren erraiteko mereximendu handiak bazituela, deusetarik hasirik, hein hartarat heltzeko. Gogo txarreko gizonak, bekaizgoa bihotzean lotua dutenek, erraiten zuten ohointzaz bildua zuela bere ontasuna, eta

suerteak emanik. Etzuten sinhesten ahal, gizon bat, eta guziz Iturretxeko seme bat, hortaraten ahal zela bere izerdiaren gostuz.

Etxean ezkonduarik zen seme gehienak sei haur ukan zituen, lau mutiko eta bi neska. Domingok aski pena ikusten zuen bere familiaren hazten, etxaldea aski ona izanik ere. Kenka bat txarra pasatu behar ukan zuen bereziki, alabaño bat biziki eri egon zaiolarik, zortzi urtetan. Sei ilabetez ospitalean atxiki zuten, eta gero zer xahutzeak. Urtearen itzulikatzerat ahal bezala heltzen ziren. Baina Eñautek laguntza handia ckarri zuen bere etxekoeri. Anaiaren haurrak bere haurrak izan balire bezala maitate zituen.

Ni naiz = je suis
 Ni = moi Nitzaiz (à vous) = je vous suis
 Nitzaio (à lui) = je lui suis
 Nitzaizue (à vous) = je vous suis
 Nitzaie (à eux) = je leur suis

ADITZ IKASKUNTZA (III)

31. zakien artalde 32. nahi litzekela
 33. egon zaiolarik 34. izan balire
 31. JAKIN. Indicatif Imperfekt

O.S

O.P.

| | |
|---------------------------|-------------------------|
| Nik nakeen = je le savais | Nazkiea = je les savais |
| Hek lakien | Hazkiea |
| Zuk zinakien | Zinazkiea |
| Harek zakien | Zazkiea |
| Guk ginakien | Ginazkiea |
| Zuek zinakiten | Zinazkiten |
| Heiek zakiten etc | Zazkiten etc. |

→ zirela.

32. UKAN. Conditionnel Présent

O.S.

O.P.

| | |
|------------------------|-------------------------|
| Nik nuke = je l'aurais | Nituzke = je les aurais |
| Hek nukke | Hituzke |
| Zuk zinuke | Zinituzke |
| Harek nukke | Lituzke |
| Guk ginuke | Ginituzke |
| Zuek zinukete | Zinituzkete |
| Heiek nukete etc. | Lituzkete etc. |

33. IZAN. R. Indicatif Présent

Hura da = il est

Hura, zait (à moi) = il m'est
 " zaizu (à vous) = il vous est
 zaiou (à lui) = il lui est
 zaiogu (à nous) = il nous est
 zaiuzue (à vous) = il vous est
 zaiue (à eux) = il leur est